

HITZ BITAN

ERRUSIA-FRANTZIA

Chiracek Putinen alde egin du Kaliningradeko enklabearen auzian

Frantziako presidente Jacques Chirac Errusiako presidente Vladimir Putinen alde agertu zen atzo Sotchin (Itsaso Beltza) egin bilkuran. Chiracek Moskuraren eskaerak sustatu zituen Lituania eta Polonia artean dagoen Kaliningradeko —Koenigsberg ohia— enklabe errusiarren auzian. Kaliningrad Europako Batasunean sartuko da Lituania eta Poloniarekin batera, eta Errusiak —eta Chiracek— ez dute ondo ikusten Kaliningradeko biztanleek Errusiako beste guneetara joateko bisa behar izatea.

PERU

Gutxienez 24 lagun hil eta 57 zauritu dira Limako diskoteka batean izan sutean

Atzo Peruko hiriburuko diskoteka batean piztutako sute baten ondorioz gutxienez 24 pertsona hil eta 57 zauritu ziren. Ezbeharra alkohola pizteko ikuskizun bat gaizki ateratzean gertatu zen, sabaia eta alfonbrak su hartu ondoren.

TURKIA

Gobernu koalizioak hala erabaki arren, Ecevit ez ditu bozak aurreratu nahi

Turkiako lehen ministro Bulent Ecevit hauteskundeak aurreratzearen aurka agertu zen berriz atzo, nahiz eta hiru alderdik osatzen duten gobernu koalizioak hala ebatzi. Ecevit idurikotz, 2004rako aurreikusita dauden bozak aurreratzeak Turkiak Europako Batasunean sartzeko abiatutako «erreformeik kalte egingo lieke».



ITALO BANCHERO / AP

Jendeak loreak eta argazkiak utzi zituen iaz, Genoan, Poliziak Carlo Giuliani tiroz hil zuen lekuan.

ITALIA. Dozenaka mila lagun bildu dira**Duela urtebete G8ko goi bilerako protestetan Poliziak hildako gaztea gogoratu dute**

Erredakzioa | DONOSTIA

Carlo Giuliani 23 urteko gaztea, Italiako Poliziak iaz tiroz hil zuen manifestaria gogoratu zuten atzo dozenaka mila pertsonak Genoan. Hainbat politikari ezagun ere bertaratu ziren. Giuliani G8ko goi bileraren kariatz globalizazioaren aurka eginiko manifestazio batean hil zuten.

Dozenaka mila manifestari atera ziren atzo Genoako karriketara, iazko G8ko goi bileran globalizazioaren kontrako protestetan Poliziak hil zuen Carlo Giuliani gaztea oroitzeko. Manifestariak bi zutabetan egin zuten ibilbidea; bat Genoako Foro Sozialak —globalizazioaren kontrako ehunka taldek osatzen dute— deituta, eta bestea Mugimendu Ez Globalaren deiari jarraituz. Aurreko taldean 50.000

bat lagunek hartu zuten parte, eta bigarrenean, aldiz, 500 inguruk.

Hirian barrena abiatu aurretik manifestariak Alimonda plazan elkartu ziren; bertan hil zuten Giuliani duela urtebete. Heriotza izandako une berean (17:27) milaka globo koloredun aireratu zituzten, eta bertaratutakoak ordu laurden izan ziren txaloak jotzen. Carlo Giulianiren gurasoak —aita sindikalista ezaguna da— bertan izan ziren, amak semeak hil zuten unean zeraman kamiseta jantzia zuelarik.

Carloren ideiak gogoan

Manifestazioak istilurik gabe iragan ziren, nahiz eta Mugimendu Ez Globalaren zutabeen tentsio une batzuk izan. Manifestariak esan zuten, Giuliani egungo sistema politiko-eko-

nomiko-sozialaren kontrakoa zen, eta mundu ezberdin baten alde egiten zuen borroka. «Argi dago mundu hori lortzeko sistema hau suntsitu beharra dagoela; ezin da erreformatu», egin zuten oihu manifestariak, megafonia baliatuta. Halaber, langileen borroka goratu zuten.

Manifestari gehien zuen zutabearen ezkerreko alderdi ugari zihoazen, tartean Olibondo kolizioko eta Rifundazione Comunista alderdiko zenbait kide. Gisa berean, Diputatuen Ganberako presidente ohi Luciano Violante —DS Ezkerreko Demokratik komunista ohien alderdiko— eta CGIL sindikatu-buru Sergio Cofferati manifestarien artean izan ziren. Cofferatik esan zuen ezin dela ahaztu iaz Genoan gertatutakoa, «demokrazia sendotzeko balio baitu».

Hainbat manifestarik Violantaren kontrako oihuak bota zituzten, hura «oportunistak» gisa hartuta.

Atzo 3.000 polizia izan ziren Genoako kaleetan. Denda ugari eta banketxeek ateak itxi zituzten istiluen beldur.

AFGANISTAN

Bizkartzainen gorputza osatu dute ministroak babesteko

Azken sei hilabeteotan Kabulgo gobernuak bi ministroren hilketak gertatu ondoren ISAF Nazioarteko Segurtasun Indarrak Bizkartzainen Gorputz afganiarra osatzen hasi dira, Hamid Karzai presidentea eta beste ministroak babesteko asmoz. Horretarako, abiapuntu gisa, 240 bat afganiar trebatu eta entrenatuko dituzte abuztuaren erdialdea arte. Nazio Batuen Afganistanerako ordezkari Lakhdar Brahimi ISA-Fen jarduna luzatzea eskatu zion Segurtasun Kontseiluari, baina honek esan zuen Afganistango segurtasunaren oinarria bertako Armada Nazionalak izan beharko duela.

SUDAN

Oinarritzko bake akordioa iritsi dute gobernuak eta SPLAko gerrillariak

Sudango Gobernuak eta SPLA Sudan Askatzeko Herri Armadako ordezkariak oinarritzko akordioa lortu zuten atzo, ia bi hamarkada irautean duen gerra zibila bukatzeko. Hala, sei urteren buruan autodeterminazio erreferenduma egingo lukete. Hain justu, horixe da SPLAren eskaera nagusietako bat. SPLA 1983an ekin zion borroka armatuari, Khartumgo gobernuak xaria edo lege islamiarra Sudan osoan ezartzean; hegoaldea nagusiki animista edota kristaua da.

ESTATU BATUAK

'Gaizkiaren Ardatza'-ren kontrako borrokan segituko du Bush

George W. Bush presidentek atzo Afganistandik itzultako soldaduei esan zien hasitakoa bukatuko duela, Irak, Iran eta Ipar Koreak osatzen duten Gaizkiaren Ardatzaren aurkako borrokan jarraituko duela adieraziz.

Nikaraguak
merezi du!

Somotoko Kintxoei lagundu nahi?

Euskadiko Kutxa. 3035 0214 38 2140020003

BBK 2095 0569 10 9101257950

KUTXA 2101 0103 48 0123035859

Egunkaria

PIPIAK GARBITU EGINGO DITUGU

Desagerrarazi nahi dituzu pipiak, termitak, sitsak eta beste xilofagoak altzari edo libururen batetik, arropa, ate, tarima edo zurezko egituretatik? Garbi-n **erraz, garbi, laster eta merke garbitzen ditugu**. Eta tratamendurik modernoekin, Shock Termikoarekin adibidez: ez dute parasitoen aztarnarik uzten, eta ez diete kalterik egiten piezei eta pinturei. Deitu eta eskatu aurrekontua: 94 457 07 39 / 943 33 18 37 / 948 30 32 45. Ikusiko duzu xomorro horiek zer gutxi irauten duten.

Garbi S.L.
KONTSERBAZIO TRATAMENDUAK